

BIBLIOGRAFI KRONOLOGIKOA

IRATZEDER

- "Ezkila eta tirola" 1951, Ezkila argitaletxea.
- "Harrapallu" 1956, Ezkila argitaletxea.
- "Zeru mendetik" 1959, Ezkila argitaletxea.
- "Argiz argi (1947-1957)" 1969, Ezkila argitaletxea.

MANEX ERDOZAINZI-ETXART

- "Hinki hanka" 1978, Elkar argitaletxea.
- "Herri honen erraieran" 1985, MAIATZ argitaletxea.

MARIXAN MINABERRI

- "Xoria Kantari" 1965, Ikas argitaletxea.

DANIEL LANDART

- "Hogei urte" 1969, Goiztiri argitaletxea.

JON MIRANDE

- "Orhoituz" 1976, Kriseilu argitaletxea, Donostia.

IRATZEDER (2)

- "Uhaineri nausi" 1972, Ezkila argitaletxea.
- "Nor da hor" 1975, Gordailu argitaletxea, Donostia.

JEAN LOUIS DAVANT

- "Makila gorria" 1981, Elkar argitaletxea.
- "Denboraren aroak" 1983, Azkue saria, Bilboko Aurrezki Kutxak plazaratua.
- "Itsasoak iraultzan" 1986, MAIATZ argitaletxea.


JON CASENAVE

- "Zutaz amoroski" 1978, Ustela saila, Hordago argitaletxea.
- "Ordu alferren segida" 1985, Elkar argitaletxea.

MANEX LANATHUA

- "Hegaztegi urratua" egileak argitaratua, 1984.

Gaineratiko testuak, "Maiatz" aldizkarian aurki ditezke, batez ere, eta azken hogei urte hauetan kaleratu diren diskoen gibebeko azaletan. Espero dugu, ez dugula, gure zerrendetan, nehor ahantzi. Barkatu aurretik, eta esker onez hartu hemen idatziak direnak.



hita ostatura bisita
txillardegia

HITZ LAUZ

Udaberri urrun hartan nerabe nintzen ni oraino. Hamabi urte nuen, nik uste; hamahiru agian.

Hamar bat egun bakantza izan genuen ikastetxean; eta ene gurasoak tarte hori nik Nafarro aldean pasatzea erabaki zuten.

Joan gara, beraz, Donostiatik Iruña. Eta han, tranbia itxura eta autobus zarata zeuzkan tren urdin, bitxi eta bagoi-bakar bat hartu dugu. Trenago zitzaidan niri, egia esan, lrungo geltokian hutsik, isilik, eta bakarrik gelditu zen beltz hura; burnibidean barrena zalapartaka,

txistuka, eta kea zeriolank joaten baitzen hura, omen, baforezko makinatxia aurretik, bere tximenea eta guzti.

—Pero éste es más moderno —azaldu zidaten—. Tiene motor Diesel.

Eta neure muzina disimulatuz, neure kolkorako bakarrik esan nuen ahapeka: "itzulerako hartuko dugu agian beste hori".

Eta Bidasoa ezkerretan utziz, ezagutzen ez nuen Igantzi-ko "Fonda Hita" misterioitsu hartarantz abiatu ginen.

Irun eta Behobi inguruak atzean utzi ge-

nituen; eta Biriatu koxkorra, ipuin herriska gisa, ezkerreko mazelan agertu zitzaigun.

Hanartean Bidasoa ibaia leun eta bakte-tsu topatu bagenuen ere, Endarlatsako kasetetara inistean, aldatu bezala egin zen; handik aurrera, kilometro batzutan zehar, ilunduz, harrondoa malkartsu bihurtuz, eta aidea bera mehatxuz beteaz zihoalañik. Ura-aren isuria bera nahasi egin bide zen Nafarroako lurraldeetara sartzerakoan; Bidasoaren erditsuan gero eta maizago apar zuzia eta arroka beltzak txandakatuz.

Kornika-kornika maletak trenetik jaitsi; eta ehun bat metroz burnibidea ezkerretan utzi ondoren, Latsaren eta Bidasoa-ren gaineko bi zubiak pasa; eta berehalaxe, ebaurrean, hitz bakar hauek irakurri nituen: "Fonda Hita. Año 1851". Huraxe zen gurea!

Gela bat eman ziguten gu hiruroi goiko estaian. Eta maletak eta pardelak hustu, eta jantziak eta gainerakoak gure amak taxutu ondoren, lehenengo ibilalditoxa egitera joan ginen ama-semeok.

—Zer yabil, mutiko? —bota zidan, horrelakorik espero ez nuelarik, zubia gurutzatu zectorren agure batek.

Bera-ko zelai zabala gurutzatu genuen orduan; eta, halako batez, nik uste baino askoz lehenago, ezkerreko mendian behera amiltzen zirelarik, bizpahiru hoditzar diztiratsu ikusi nituen; baita beroriei zegokien zentralea ere beheko aldean, kaminoaren ondo-ondoan. Eta berehalaxe etxe mordoska bat, eta zubi bat, eta hanxe gelditu gure tren urdina:

—Ventas de Yanci: —entzun zen bazterretan.

Eta lotsatu bezala egin nintzen; ez bainon tutik konprenitu. Eta, batera ahalkez eta amorrus, isilik geratu nintzen. Eta gauza bera nire anaia. Amak erantzun zion zerbait: euskaraz guk ez genekiela, edo horrelako zerbait.

Maribi zeritxon etxeko alaba (orduan hamar hamaika urtetako neskatila bipila) berehala egin zen gure adiskide. Eta oso azkar jarri gintuen gu, kaletar baldarrok, Igantzi-ko jolaspideen jakinaren gainean.

Kañabera bat zeukan ostatuan, eta arrantzan irakatsi zigun. Ibai ertzean txixarreak harrapatzen ikasi genuen, eta segidan hamuan jartzen. Eta, egunero-egunero, gelotikitik goizeko tren pasatzen ikusi ondoren, Bidasoa gaineko zubira joan ohi ginen hiru neska-mutik; eta handik arrantza lanari paxaran ekiten.

Berrizaun-auzo hartan berde eta bare agertzen zitzaigun Bidasoa. Eta ez dakit nik goiz urrun haietan zertxu harrapatzen ote genuen. Zerbait harrapatzen genuela behintzat, bai: egunero arraintxoren bat edo biga. Zin egin diezazueket hau. Eta sekulako pozez eramaten genuen geure alxorra Hita-Ostatu-ara eguerdi-irian.

"Hiru" joan ohi ginela esan dut arestian; baina gaizki esan dut. "Laurok" joaten baidin.

Laugarren arrantzale izkutua, ostatuko "Pol" zakurra baitzen. Ehize zakur otzan horietako bat, munduan ezer edo inor otzakin baldin bada. Marroia zuen larrua bizkarrean, eta zuria bularrean eta hanketan. Eta begirada beti triste zuen, nire ustez; eta belarriak luze, oso luze.

Arratsaldeetan, berriz, kaminoan barrena abiatu ohi ginen oinez amarekin; bake osoan ia-ia, kobterik eta gantziarik handik garai hartan ozta-ozta bezibilelako.

Zenbait aldiz Igantzi-rantz aldapan gora abiatzen ginen, eta harkaitzetako surangilik maklaka izutuz entretentzen ginen; eta horrela, konturatu ere gabe, herriaren sarreran Cabra-k zeukan zermitokiraino inisten ginen.

Beste zenbait aldiz, azkenik, Bera aldera jotzen genuen; eta hodi gaiztak eta Zentrale beldurgaria pasatuz, Etxalar-ko Benta-raino joaten. Nolako kezka harrigarria nire baruan ebetzar ilun beltzaira hura bidartean erreparratzen. Sorginik inon bizitezokotan, hanxe baretz, nik uste: asaldatu egiten ninduten, bai, teiltatu erpin hark, eta leiho borobil eta persiana zorrotz haiek, eta Etxalar aldera zihooan bide itzaltsu hark...

Hita-Ostatuan garai hartan, beti karabierako bezero, beren uhalak eta kartutxerak ongi agirian. 1942ko udaberri hartan, gerra kutsua nabarmen Nafarroako mugan.

Halako batez gure aita etorri zen Donostiatik. Espainiatar koloreak zeuzkan kartoitxo bat erakutsi zigun afaltzerakoan. Eta bandera hutsa bide zen txartel bixi hartan, oraindik ere badakusat neure barnuan, hitz bakar hau irakurri nuen: "Salvoconducto".

Biharamon goizean Hita-Ostatuaren aurrean bertako guztiekin foto batzu atera, bidaska haietatik "Pol"ekin azken itzulitxo bat egin; eta Elizondora joan ginen, eguna han pasatzera. Eta goiz hartan, bai: makina beltzeko trenak eraman gintuen, txistuka eta zalapartaka.

Eta gauean Donostia aldera, etxera, kolejiora.

Igantzi-ko egonaldia, kitto:

... Eta udaberri urrun hartatik berrogei urtetara (urte gehiegitarra, beraz), aurtengo Maiatzean dena airtortzekotan, zergatik ez dakidala, barne egari harrigarriak horretaratutik, Hita-Ostatu bisita izkutua egitera deliberratu nintzen.

Eta bakarrik abiatu nintzen Berrizaun aldera; neronen barne-muinetara ote nindoan zalantzan; debekaturik zegokidan leku batetara joango bainintzen.


Ezkerretan utzi nuen Xoldokogaina soil; eta hanxe topatu nuen, begirale, Biriutu nimitioa, makina bat gertakari odoltsuren lekuko mutu.


Arriluzko garita zaharrakatueta, karabierorik ez; baina leihatilek eta atek beren hartantxe diraute, aurrekaldeko estalpetxoek bezalaxe; nahiz askotan goroldioa gailen agertu.

Ibai-ertzean arroka berdeak nagusi. Eta, tarteka, ur isuriaren zurrumurrua azkartzearekin batera, apar lerroak hegitik hegira baradera urtsu bat sortzen.

Hita-Ostatu baina lehentxeago, "Central Yanci I"ko hodi eskergak topatu ditut, leku berean, zarata berean ari. Gasolina-postua gora behera, itxura berean haurtzaroko ostata; eta eskal letraz, hauxe irakurri dut: "Restaurante Hita".

Eta ez bat eta ez bi, baina taupadak azkartzen zitzaizkidala, sartu egin naiz:





—Txuri bat faborez, nik.

—¿Cómo?

—Txuri bat aterako didazu, faborez?

—Un blanco, dále —zakarki, hango an-
dere batek.

Eta bertako mutil gazteak, zipitzirik erantsi
gabe, txuri bat aterat dit.

“Ongi etofi” irakurri dut orduan atalbu-
ruan, azentua eta guzti. Eta beheraxeago,
beste hau: “Horario de comidas: de 1 a 3; de
8 a 10”.

Jangelara pasa naiz. Ez galda niri zer
bazkaldu dudán: ez dakit. Fededuna elizan
sendi dezakeena konprenitu dut ziplo. Hura
dardara!

Txoko-armairu triangulare iluna, garai
hartakoa iruditu zait. Gauza bera pareta-erlajo
luzea, beti tinko, eta urraidea kolorez.

Ezer esan gabe ordaindu dut.

Baina zerbitzatu nauen emakumeak, ni-
re adinkide, zerbat igarri bide du nire
begiradan:

—¿Quiere usted algo más?

—No, no. Nada —ahalik eta hozkienik
nik erantzun.

Komunerako aitezian, goiko pasilloa
ikustera joan naiz, ia isilka, ia-ia ohoien bat
bainintzen. Ez nuke segurtatuko koadro
haiek ere, orduko berak ote direnez.

Eta xehetasunak han horrela ikuska ari
nintzanean, jangelatik heldu den esaldiak inar-
rosi nau azkarki, hamitzeko moduan: “Eso,
eso, Mariví: ¡dése caña a ésel!”...

Bertan behera ito dut inori ezer ere gal-
detzeko tentazioa: “Mariví” esan dute...

Baina kanpora irten naiz, amasa sakonki
hartzeko behar hertsian.

Ganbioien orroa behin eta berriz suntsi-
tzean, antzinako isiltasun berbera zegoen
Berrizaun-en.

Hiru begi dituen zubia gurutzatzen hasi
naiz. Burdinazko eskudel hotza, hanxe ze-
goen. Hita-Ostatuaren atzeko aldean, Bida-
soara begira, Baztango etxe askotan bezala

xe, balkoi luze bat ageri zen goiko estaian,
zeharka, eta teiltaturaino oholak zut.

Irun-Elizondo tren-ohiaren iragan-bidetik
abiatu naiz oinez. Hostoen eta uraren xum-
urrak nahasirik heltzen ziren ibai-ertz hartarai-
no; eta Bidasoako ur berdeak eta Berri-
zaun-go etxe zuriak, zuhaitz adarren artetik
ikus zitezkeen.

Zuhaitzak, ibai-hegietan, Bidasoan edan
nahiz itxuraz, harrigarriro makurturik.

Eta airean, belarki urrin ederra.

Igantzi-rako aldapan gora abiatu naiz.

Bere hartan aurkitu dut xalet arrosa: “Vi-
lla Maria del Camino, 1912-1962”. Ez nekien,
noski.

Etxaurrean bi aulki gorri, oso gorri, zai;
eta magnoli-ondo mardul pare bat.

Latsa-errekaren ondoan, zentrale bu-
rundara beti ere etengabe: “Central Electra
Aranaz, Año 1913”.

Eta Arantza-rako bidearen gainean, le-
trero hau: “Aterpe Erregetgia. Aranaz, 7 km.”.

Haurretan bezalatsu, surangilak harkaitz
arrailduretara iheska topatu ditut; eta sasiak,
garoa eta txillarra ugari. Basa-marrubi apalak
ere bai, tarteka; eta bizpahiru jan ditut: mikatz
oraindik, baina debekatutako atseginarean
xarmaz naharoki homiturik.

Gorago joan, eta ozengago ere uxol izku-
tuen zurrumurrua.

Bilatzten nuena, atxeman ezin...

Aldapa jaitsi, eta eskuinera jo dut gelta-
kiaren bila:

—Hemen nonbait zegoen, bai.

Hurbildu ala, azkartu egin da kirkirren
kanta taigabea. Eskuin aldeko pentze leu-
nean, sorgin-belarrak, bitxilorak eta menda
ugaldu dira; eta ni ondotik pasatzean, istilen
ertzean eguzkitan zeutzan igel txikiak, jauzi
egin dute uretara.

Suntsitua zen jadanik zentrale zaharreti-
kako burrundara.

Geltokia izandako etxexoan, bost letra
hauek irakurri ditut nekez: “Yan... Ar...”.

Ateak kukuturik zeuden horma batez;
eta burnibidea zegoen zabalunean, baratza
bat topatu dut; eta bertako landareak, udabe-
miarekin hozitzen hasiak.

Bidean aurrerago joaki, saihetseko pare-
ta begiratu dut; eta horretan bai. Horretan
osoki irakur daiteke oraindik: “Yanci-Aranaz”.
Barrutik zaunka egin dit zakur batek.

Teiltatuko urak biltzen dituen arroila, erori
egin da tarteka; eta Igantzi-Arantza-ko gelta-
kia behinola lotzen zuen telefonoaz, borna
bakar bat eta bizpahiru gako herdoildu beste-
rik ez da gelditzen...

Suntsitua da tren urdintxo hura, eta de-
sagertu egin da nire haurtzaroko Hita-Ostatu
liluragarri hura. “Pol” fidela ere segurki ahan-
tzi dute igantziarrek, ere Ostatuok berek
ausaz. Eta arrantzarako hain iaioa zen neska-
tala bizi hura ere (barka biezat gaurko Maribi
horrek, agian) joan egin da betirako.

Ni neu ere banao. Banekien. Badakit.
Gaurtxe ikasi dut sekula baino garbikiago.

Baina igeltxo jauzkariez oroitut naiz, eta
zaunkaka errezebitu nauen zakurrak, eta har-
kaitz arteziatoko surangilla izutiez, eta ba-
sa-marrubi mikatzez. Kirkirren kanta asper-
gaitzak nire belarriak astintzen zituen. Eta
Berrizaun-go arratsalde epellean, bere poz-
-eskaintza berriztatzen zuen zeru urdin
apartak...

Udaberria heldu da, deika; nahiz ez niri,
nahiz ez nik maite nuen neure munduari.

Ahuen etsirik ez, halere. Oto! Nori bere
aldia.

Beude beren hotretan Pol ehize-zakur
otzana, eta Igantzi-Arantza-ko geltoki alai.

Bego bere hartan Berrizaun liluragarri
hura.

Eta, tristaturik, baina bizkorturik ere bai
batera, Berrizaun-go Hita-Ostatu zekula ez
izultzekotan, agur isila egin diet zubiei eta
zuhaitzei.

Berrizaun haren oroitzapena bederen, ni
bizi naizeno, ez baita nigan inoiz zaharkituko;
eta are guxtiago hilko.